

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure enpresak hazkatzeko modu eraginkorrago bat eskaintzen du igeltsua dutenentzat. Baina ez da izango orain arte etxeetan erabiltzen den plastikozko jostorratzen modukoa, izan ere, ideia berritzaile gisa, egurrezko luzakin bat izango da ISBIDE. Honen puntak nolabaiteko kurbadura txiki bat edukiko du eta ez da ez zorrotza ez eta guztiz borobila ere: hauen bien arteko erdibide bat da, non ahalbidetzen den pertsonen hazkatzea burutzea. Gure proiektua beraz, osasun sailean kokatuko genuke, hain zuzen ere, eta aurretik aipatu dugun bezala, igeltsua duten pertsonentzat baliagarria izango da.



BALIO PROPOSAMENA

Argi dago produktu batek gaur egungo merkatuan lehiatu ahal izateko hainbat ezaugarri izan behar dituela besteengatik bereizten duena, eta osasungintzan gero eta aurrerapen gehiago egiten ari direla kontuan hartuta, merkatu hau azkar garatzen eta handitzen da.

Baloretzko proposamenean datza bezeroek gure enpresaren, eta ez beste baten, alde egiteko arrazoi nagusia. Hain zuzen ere, gure bezeroek bertan aurkitu beharko baitute bilatzen duten konponbide edo produktua.

Igeltsua betidanik egon den konponbidea izan da hezurra haustean. Epe luzez eraman behar den *tramankulua* denez, azkura ematen du. Merkataritza sektorean, nahiz eta aspaldidanik igeltsua ezartzen den den, ez da inoiz azkura hori murrizteko tresnarik sortu. Beraz, gure ideiak beharizan hau konpontzeko aurrez existitzen ez den produktu bat sortzea du helburu. Gure produktuak, gainera, makina bat abantaila ditu besteekin konparatuz gero. Lehenik eta behin, produktuak bezero baten edo bezero segmentu baten berariazko beharretara egokituz sortzen du balioa. Izan ere, igeltsua istripu baten ondorioz edozein pertsonak eduki dezake eta erabilgarria izan daiteke haientzat.



Beste alde batetik, azkura kentzeko erraztasuna eskaintzen du. Etxean dauzkagun beste material batzuk hartu ordez, guk sortutakoa aproposagoa da azkurak ematen duen egonezina konpontzeko. Izan ere, orain arte, adibidez, plastikozko jostorrazak erabili ohi dira azkura murrizteko, beste soluziorik ez baita eman merkatuan. Tresna hau sortu ahal izateko behar ditugun lehengaiak honako hauek dira: egurra, egurra eraldatzeko makinak eta barniza. Horretarako, lagungarri zaizkigun pertsonen baliatuko gara, gure gurasoak, haien ogibidea arotza baita. Ondorioz, prezioa lehiakorragoa denez, merkatuan toki bat egitea lortuko du, baita merkatu zati handi bat bereganatzea ere. Beraz, esan genezake prezio-kalitate erlazioa oso onargarria dela poltsiko guztietarako.

Horretaz gain, bezeroen asetasuna bermatzeko eta haien azala ez urratzeko metodo berri bat asmatu dugu. Izan ere, haren funtzioa betetzeaz gain (azkura kendu), haren punta ez da ez guztiz zorrotza ez eta biribila izango. Horrela, haren azalean arazoak sortzea eragotziko dugu: zauriak, babak... Gainera, erabateko erabilerraztasuna du, makila igeltsuan barrena sartzea soilik baita.

Azkenik, lortzeko oso aisea den produktua izango da, izan ere, herrietako farmazietan (herri nagusietaz aparte beste txiki batzuetan ere egongo da) eta supermerkatuetan aurkituko da. Beraz, edozeinentzako eskuragarria izango da.